

BASABURUKO UDAL PLANA Iharduera Sailkatuen Arauak

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. ATARIKOAK

1. art. Xedea
2. art. Aplikazio eremua
3. art. Arauen menpeko iharduerak
4. art. Iharduera salbuetsiak
5. art. Eragozpen neurri eta mugen elkartzea.

II. KAPITULUA. BALDINTZA, MUGA ETA NEURRI UZENTZAILE OROKORRAK

LEHEN ATALA. ZARATA ETA BIBRAZIOEN ERAGOZPENA

6. art. Hots eta bibrazioen inmisiorako baldintzak
7. art. Makinak ezartzeko baldintzak.
8. art. Hodiak ezartzeko baldintzak.

BIGARREN ATALA. KE ETA GASEN ERAGOZPENA

9. art. Eguratsera emititzeko baldintzak
10. art. Erregaia erabiltzen duten instalazioen baldintzak
11. art. Erregaiak erabiltzeko baldintzak

HIRUGARREN ATALA. ISURKIEN ARAUKETA

12. art. Erreten publikoetara doazen isurkien baldintzak
13. art. Estolderiara doazen isurkien baldintzak

LAUGARREN ATALA. SUTE ETA LEHERKETEN ERAGOZPENA

14. art. Eragozpena eta kontra egiteko baldintza teknikoak

**III. KAPITULUA. BALDINTZA, MUGA ETA NEURRI ZUZENTZAILE
BEREZIAK.**

LEHEN ATALA. ABERE USTIATEGIAK

- 15. art. Sailkapenerako baldintzak
- 16. art. Gorotza eta gernuak kentzea
- 17. Belarra kanpoan gordetzea.

BIGARREN ATALA. IBILGAILUEN GARAJE ETA APARKALEKUAK

- 18. art. Airearen berrikuntza

**HIRUGARREN ATALA. OSTALARITZA, IKUSKIZUN ETA AISIARAKO
ESTABLEZIMENDUAK**

- 19. art. Instalazioen isolamendu akustikoa, hots emisioa eta baldintzak.

I. KAPITULUA.

ATARIKOAK

1. art. Xedea.

Arau hauen xedea da honako legediaren menpeko diren Iharduera Sailkatuak erregulatzea: ingurugiroa babesteko iharduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legea, haren araudia (otsailaren 15eko 32/1990 FD) eta beste xedapen osagarri eta bateragarriak. Horrez gain, lege horien aplikazioa balditzatzen duten parametroak ere arautuko dituzte.

2. art. Aplikazio eremua.

Arau hauek nahitaez aplikatu beharko dira udalerrri guztian, eta indarra hartuko dute Basaburuko Udal Planak indarra hartzen duen egun berean, beti ere, ondorengo xedapen edo arau zeinbere eskumenen barrenean lerrun gehiagokoak direnei kontra egiten ez badiote.

3. art. Arauen menpeko iharduerak

Arau hauen xedapenen menpe geratzen dira industria, iharduera, instalazio, garraiabide eta makina guztiak, eta orokorrean zarata, bibrazio, ke, usain, isurki, leherketa edo suterik sortzeko gauza den edozein gailu edo iharduera, jendea gogaitu edo haien osasun edo ongizaterako arriskugarri izan daitekeena.

Horrela ba, arautzekoak dira honako iharduera edo instalazioei buruzko lizentziak emateko tramitazio eta baldintzak.

- a) Erauzketa iharduerak (meategiak, harrobiak eta legartegiak).
- b) Instalazio nuklear eta erradioaktiboak.
- c) Energia ematen duten instalazioak, bai eta instalazio hidroeletriko txikiak ere.
- d) Industriak orokorrean, konponketarako tailerrak barne direla.
- e) Abere hiltegi eta ustiategiak, arrain haztegiak barne direla.
- f) Erregai, objektu edo materialak biltzen dituztelako sute edo leherketa arriskua duten iharduera edo instalazioak.
- g) Ibilgailuetarako garajeak eta hornitegiak.

- h) Elikadura arloko merkatal iharduerak, labedunak edo gabekoak.
- i) Merkatal eta zerbitzu iharduerak orokorrean.
- j) Ostalaritzako iharduerak (hotelak eta kanpinak).

- k) Ikuskizun publiko eta jostetako iharduerak (antzoki, zinema, dantzaleku, taberna, jatetxe, diskoteka, zorte jokoak eta antzekoak).
- l) Ingurugirora organismo patogenoak igorri ahal dituzten iharduerak.
- m) Hiri, nekazaritza edo industriako hondakin solido, likido edo gasezkoak bildu, tratatu, berreskuratu eta desagertarazteko iharduerak.
- n) Urak edangarri bihurtzeko instalazioak.
- ñ) Hiritako ur hondakinak arazteko instalazioak.
- o) Hilerriak.
- p) Osasunean eta ingurugiroan antzeko eragina duten beste iharduera batzuk.

4. art. Iharduera salbuetsiak.

Arau hauek xedatzen dutenerako kaltegabeko iharduerak izanen dira, eta haien aplikazioetatik salbu egonen dira beraz, honako iharduera hauek.

- a) Eraikuntza arloko igeltsaritza, kisugintza, iturgintza, berokuntza eta aire egokituko tailerrak, beheko solairuan kokatuak badaude eta ezarritako potentzia mekanikoa 5KW baino gutxiagokoa eta azalera 200 m² baino txikiagoa duten bitartean.
- b) Erloju, urre, zilar, bitxi, optika, ortopedia eta protesietako tailerrak, beheko solairuan kokatuak badaude eta ezarritako potentzia mekanikoa 5KW baino gutxiagokoa eta azalera 200 m² baino txikiagoa duten bitartean.
- c) Ehundegi, jostun, larru, puntuko arropa, kapel eta goarnizio tailerrak, beheko solairuan kokatuak badaude eta ezarritako potentzia mekanikoa 5KW baino gutxiagokoa eta azalera 200 m² baino txikiagoa duten bitartean.

- d) Elektragailu, erradiotelefonoia, telebista, bulegotarako makineria, eta josteko makinak konpontzeko tailerrak, beheko solairuan kokatuak badaude eta ezarritako potentzia mekanikoa 5KW baino gutxiagokoa eta azalera 200 m² baino txikiagoa duten bitartean.
- e) Etxeetako abeltegiak, horiek 2 behi edo zaldi, 2 zerrama, haragitarako 3 zerri, 5 ardi edo ahuntz, 10 untxi ama eta 2 hegaztietarako edukiera gainditzen ez badituzte.
- f) Zakurrak hazi edo gordetzeko instalazioak, gehienez ere hiruhilabetetik gorako 4 zakur barrenean sartzen ahal dituztenak.
- g) Objetu edo materialak biltzeko iharduerak, produktu kimiko edo erregaiak salbu, hala nola droga, botika, ongarri, pestizida, pintura, berniz, argizari, neumatiko, labangarri, zurezko altzari eta antzekoak, azalera 300 m²koa baino txikiagoa bada iharduerak isolatuak direnean, edo 150 m² baino txikiagoa gainerako kasuetan.
- h) Industrian erabiltzeko ez diren erregai likido edo gasezkoak biltzeko instalazioak.
- i) Ibilgailutarako garajeak, azalera 150 metro karratu baino txikiagoa dutenak.
- j) Laborik gabeko elikadura arloko merkatal iharduerak, ezarritako potentzia mekanikoak (hozkailu kameretako konpresoreak, haizagailuak, jasogailuak, etab.) 5 KW gainditzen ez baditu eta azalera 400 m² baino txikiagoa bada.

- k) Merkatal iharduerak eta zerbitzutakoak orokorrean, produktu kimiko edo erregaien salmenta salbu, hala nola droga, botika, onghaizagailuak, jasogailuak, etab.) 10 KW gainditzen ez baditu eta azalera 1.000 m² baino txikiagoa bada.gizari, pneumatiko, labangarri, zurezko altzari eta arri, pestizida, pintura, berniz, arkonpresoreak, antzekoak, ezarritako potentzia mekanikoak (hozkailu kameretako
- l) Etxeetako droga, botika, objektu edo zurezko altzari, paper eta plastikozko objektuen merkatal iharduerak, azalera 200 m²tik beherakoa bada.
- m) Urak arazteko instalazioak, desinfektatu baino egiten ez denean.

Artikulu honi jarraiki, kaltegabekotzat hartutako iharduera batek indarrean dagoen ingurugiroari buruzko araudian zehaztutako muga onargarriak gainditzen baditu, Alkateak iharduera horri arau hauetan ezarritako xedapenak ezarri ahal izanen dizkio. Kaltegabekoen sailean sartzeak ez du kentzen behar diren araudi sektorial guztiak aplikatzea.

5. art. Eragozpen neurri eta mugen elkartzea.

Arau hauek ezartzen dituzten eragozpen eta mugak beren jatorri edo sorburuaren arabera antolaturik daude (zarata edo bibrazioak, ke eta gasak, isurkiak, suteak eta leherketak).

Iharduera bat bakarrari, aipatutako eragozpen guztiak edo horien zati bat aplikagarri izaten ahal zaizkio, eragozpen edo arrisku sorburu ezberdinak baldin badaude.

II. KAPITULUA.

BALDINTZA, MUGA ETA NEURRI OROKORRAK

LEHEN ATALA. ZARATA ETA BIBRA- ZIOEN ERAGOZPENA.

6. art. Hots eta bibrazioen inmisiorako baldintzak.

Hots eta bibrazioen inmisiorako honako muga hauek ezarri dira, ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuaren II. Kapituluaren ezarritakoaren arabera definitu eta neurturik:

1. Debeku da iharduera edo instalazioen funtzionamendua, kanpoko hots mailak 55 dBA gainditzen badu egunez eta 45 dBA gauez.
2. Debeku da iharduera edo instalazioen funtzionamendua, barreneko hots mailak honako balio hauek, dBA-etan gainditzen baditu.

Lokal hartzailea Egunez Gauez

Etxebizitzak, osasun-etxeak eta ikastetxeak (logela, egongela eta ikasgelak)	35	30
Etxebizitzak, osasun-etxeak eta ikastetxeak (pasilo, sukalde, garbigela eta zerbitzurako zonak)	40	35
Merkatal iharduerak eta zerbitzutakoak	45	45
Industria iharduera ixilak	55	55

3.Aurreko ataletan xedatutakoaz aparte, debeku da iharduera edo instalazioen funtzionamendua, baldin eta haien hots mailak hiriguneko edo zona habitatu edozein lekutan dagoen hots mailari 5 dBA baino gehiago gehitzen badizkio.

4.Debeku da iharduera, makina zein instalazioen funtzionamendua, bibrazio mailak 60 LA gainditzen badu egunez eta 55 LA gauez.

5.Etxebizitza, osasunetxe zein ikastetxeetako fatxadetan, trafiko hotsaren baliokide diren hots mailek, ez dute 65 dBA gaindituko egunez eta 55 dBA gauez. Ibilgailuen hots emisioaren gehienezko mailak E.E.E.an indarrean dauden xedapenei egokituko zaizkie.

Debeku da motordun ibilgailuak ibiltzea, ongi eta etengabe funtzionatzen duen motelgailurik ez badute.

7. art. Makinak ezartzeko baldintzak.

1.Makina guztiak zoruko aingurapen zein berme zuzenik gabe ezarriko dira, eta, hala behar izanez gero, motelgailuak edo bibrazioak galarazteko beste elementu egokiak paratuko dira, makinaren pisua 1,5-2,5 alditan gainditzen duten zintzilikako bankadak, konparazio.

2.Bibrazioak transmititzeko ezintasuna garantizatzen ez bada, iharduerak egitura independienteko eraikin oso bat okupatzen ez duelako, honakoak debeku dira:

* Makinak pareta nahiz zutabeetan ainguratu edo apoiatzea. Sabaietan, 2 KW baino gutxiagoko potentzia mekanikoa duten aireztapen ekipoak, soinurik gabeko kabina bidezkoak, eseki ahalko dira, frekuentzia txikiko motelgailuen bitartez. Makinak pareta edo zutabeetatik 0,70 metrotara egonen dira, gutxienez ere.

* Goitiko solairua, solairuarte, goipisu, hegalkin edo antzekoetan, 2 KW baino gehiagoko potentzia mekanikoa duten makinak ezartzea; gainera, guztirako potentzia ez da 5 KW baino handiagoa izanen. Arau honetatik salbuesten dira bertako langileen edo jendearen bizigarritasun baldintzak hobetzeko helburua duten instalazioak, hala nola, aireztapen eta aire

giroturako ekipoak, igogailuak, eskailera mekanikoak, kargagailuak, etab.

8. art. Hodiak ezartzeko baldintzak.

- 1.Nahitaezko aireztapen eta klimatizazio ekipoek, hala nola bestelako makinek, hodi eta tutueriekin duten konexioak, juntura edo beste loturagailu elastikoen bidez eginen dira beti ere.
- 2.Tutuerien eta hodian lehenbiziko atalak, eta hala behar izanez gero, sare guztia, elementu elastikoen bidez eutsiko dira, eraikinaren egituraren bitartez hots eta bibrazioarik ez transmititzeko.
- 3.Tutueria eta hodiekin enpotramendurik gabe eta eraginkortasun egiaztaturiko muntaia elastikoaren bidez zeharkatuko dituzte paretak.
- 4.Debeku da hodiak paratzea sabaiko isolamenduaren eta goiko solairuaren artean edo pareta bikoitz baten elementuen artean, baita ganbara akustiko hauek aire girotuko bulkada edo itzulera "plenums" gisara erabiltzea ere.

**BIGARREN ATALA.
KE ETA GASEN
ERAGOZPENA**

9. art. Eguratsera emititzeko baldintzak.

1. Atmosferara doazen emisioak, Giro Atmosferikoa Babesteko Legea garatzen duen otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuan ezarritako mugak errespetatuko dituzte. Dekretu horretan arautzen ez diren ihardueretarako, honako muga hauek ezartzen dira:

- Partikula solidoak	150 mg/Nm ³
- SO ₂	4300mg/Nm ³
- CO	500 ppm.
- NO _x (NO ₂ gisara neurtua)	300 ppm.
- F	250 mg/Nm ³
- Cl	230 mg/Nm ³
- 4 Cl	460 mg/Nm ³

- SH2

10 mg/Nm³

2. Lokal bateko iharduerak gas, lurrun, ke, hauts edo lanbrorik sortzen badute, egokitu egingen dira harik eta kontzentrazio handienak, Iharduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Erregelamenduko 2. Eraskinean, 1.971ko martxoaren 9ko Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko Ordenantza orokorrean eta gai bereko gainerako araudian aipatzen diren zifrez beherago egon arte.
3. Ezin izanen da kerik, gasik, lurrinik edo substantziadun airerik, kanpokoa ez bezalako tenperatura duenik, inongo faxada edo patiotatik kanpora bota.

Salbuesten dira 10.000 frigoria/h baino potentzia txikiagoa duten aire giroturako instalazioak, beti ere molestagarriak ez badira.

4. Horrenbestez, tximinia eta haiekiko lotura hodiak, material erresistente eta inerteaz instalatu, eta behar bezala isolatuko dira, haien funtzionamenduak beste eraikuntzaren bat ez ukitzeko moduan.

Industria iharduera guztietako tximinietan neurriak, Industria Ministerioaren 1976.eko urriaren 18ko Aginduan ezarritakoari egokituko zaizkio.

10. art. Erregaiak erabiltzen duten instalazioen baldintzak.

Erreketa egiten deneko toki eta instalazioek, behar bezalako baldintza teknikoak izanen dituzte erreketa osotarakoa izan dadin, erabiltzen den erregai motaren arabera, eta bermaturik egonen da kutsadura edukia otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuaren 4. Eraskinak finkatu mugen barrenean egon dadin.

11. art. Erregaiak erabiltzeko baldintzak.

1. Erregaiak erabili eta bero-potentzia 20.000 Kc/h baino handiagokoa duten instalazioetan erabiltzen diren erregaiak, abuztuaren 23ko 2204/1975 Dekretuan aurrikusten denaren araberrakoa izanen dira.

2. Zilegi izanen da egur ikatzak eta cock ikatza erabiltzea kea kanporatzeko sistema efektiborik gabe, kontsumoa 20 Kg/h baino gutxiagokoa duten erretokietan.

HIRUGARREN ATALA. ISURKIEN ARAUKETA

12. art. Erreten publikoetara doazen isurkien baldintzak.

Erreten publikoetara doazen ur zikinek, zein ere ihardueratakoak diren, uztailaren 29ko 927/1988 E.D.ko 3. eraskinean ezarritako kalitate betebeharrak beteko dituzte. Aipatu eraskina araudi komunitarioko izokidun erreken baldintzei buruzkoa da.

13. art. Estolderiara doazen isurkien baldintzak.

Kolektore publikoetara doazen ur zikinen isurtzea eta kutsatzaileen gehienezko kontzentrazio istantekoen baldintzak, martxoaren 15eko 55/1990 Foru Dekretuan arauturik daude, eta honako hauek dira:

1.Parametroa (unitatea)Gehienezko balore onargarria

pH	5,5-9,5 bitartekoa
Solido lodiak	Batere ez
Solidoak esegiak (mg/l)	500
O.E.B. (D.B.O.) (mg/l)	500
O.E.K. (D.Q.O.) (mg/l)	1000
Tenperatura (° C)	40
Kolorea	1/40 diluzioan nabaririk ez
Aluminio (mg/l)	5
Artseniko (mg/l)	1,0
Bario (mg/l)	20

Boro (mg/l)		5
Kadmio (mg/l)	0,2	
Kromo III (mg/l)		3
Kromo VI (mg/l)		0,1
Burdina (mg/l)	5	
Manganeso (mg/l)		5
Nikel (mg/l)		5
Merkurio (mg/l)		0,01
Berun (mg/l)		0,5
Selenio (mg/l)	0,1	
Eztainu (mg/l)	5	
Kobre (mg/l)		2
Zink (mg/l)		5
Zianuroak (mg/l)		0,5
Kloruroak (mg/l)		2.000
Sulfuroak (mg/l)		2
Sulfitoak (mg/l)		2
Sulfatoak (mg/l)		500
Fluoruroak (mg/l)		12
Fosforo denetara (mg/l)		20
Nitrogeno amoniakal (mg/l)		35
Kjeldahl Nitr. denera (mg/l)		50
Nitrogeno nitriko (mg/l)		20
Olio eta koipeak (mg/l)		40
Fenolak (mg/l)		1
Aldehidoak (mg/l)		2
Detergenteak (mg/l)		6
Pestizidak (mg/l)		0,05
Hidrokarburoak (mg/l)		20
Metalak denetara (Zn + Cu + Ni + Al + Fe + Cr + Cd + Pb + Sn)(mg/l)		< 20

2. Industria iharduerak, lehenbiziko atalean ezarritako mugak gainditzen dituzten ur zikinak sortzen badituzte, aipatu mugak betetzeko behar diren aurretratamenduak eginen dituzte beren instalazioetan.

3. Industria iharduerak, laginak hartzeko eta ur-etorrien afororako behar diren tresnak izanen dituzte beren kolektoretan, saneamendu sareei edo erreten publikoetako isurguneei lotu aurretik.

4. Debeku da ondoren zehazten diren produktuak kolektore publikoen sarera isurtzea:

- * Solido, likido edo gas erregarri, errekor zein lehergarriak.
- * Solido, likido edo gas suminkor, korrosibo zein toxikoak.
- * Mikroorganismo kaltegarriak edo hondakin erradiaktiboak, erakunde eskudunek horiei buruz ezarritako arauak hausten dituzten ezaugarri, kopuru edo kontzentrazioa dituztenak.

5. Debekuzikinen kolektoreetara isurtzea, iharduerareninguruan saneamendu sare bereizgarri bat edo erreten da ur garbiak (hoztekoak, eurizkoak. etab.) ur publiko bat dagoelarik eta beste irtenbide tekniko bat hartu ahal denean.

6. Debeku da estolderiara isurtzea abere ustategietatik heldu diren hondakinak. Etxeko estalbeek zilegi izanen dute estolderiara isurtzea gehienez cm 1eko irekigunea duten sareto finkoak jarriaz Arau hauetako 16. art.ak xedatu moduan.

LAUGARREN ATALA. SUTE ETA LEHERKETEN ERAGOZPENA.

14. art. Eragozpena eta kontra egiteko baldintza teknikoak.

1. Betebeharrekoak dira Eraikuntzarako Arau Oinarrizkoa, eraikinetan suteak eragozteko baldintzak, NBE-CPI 91, hala nola haren eranskinak eta geroagoko aldaketak.

2. Aipatu Arauean biltzen ez diren industri instalazio eta tailerrei dagokienean eta horri buruzko araudi berririk egin artean, Nafarroako Gobernuako Organismo eskudunek ezarritakoari jarraituko zaio.

III. KAPITULUA

BALDINTZA, MUGA ETA NEURRI ZUZENTZAILE BEREZIAK.

LEHEN ATALA. ABERE USTIATEGIAK

15. art. Sailkapenerako baldintzak.

Abere ustiategiak dira, arau hauetako 4. artikuluan etxeko aberetegientzat ezarritako abereburu kopurua gainditzen dutenak.

16. art. Gorotza eta gernuak kentzea.

1. Debeku da gorotza zein gernuak erreten publiko edo hiri saneamenduko kolektoretara isurtzea.

Isurtze hau etxetako aberetegietan egin ahalko da bakar bakarrik, aurretik cm. leko gehieneko irekigunea duten saretoak jarritz, eta beraietan geratutako solidoak egunero bilduz.

2. Gernuak sortzen dituzten ustiategiek, ustiategi motaren arabera, gernutegi edo biltegi iragazkaitzak izanen dituzte, ustiategira zirkuitu itxiaren bidez konektatuak, eta gutxienez ere, bi hilabeteko iharduerak sortzen dituen hondakinak hartzeko edukiera izanen dutenak. Euri urak behar bezala hustuko dira, ur zikin eta gorotzekin kontakturik izan gabe. Debeku dira putzu iragazgarriak, gainezkabideak eta kolektore zein ur ibilguetara doan edozein irteera zuzen.

Gernuak sortzen badira eta ezinezkoa bada gernuontziak eraikitzea, aldatu egingen da ustiaera, sortzen diren hondakin gehienak solidoak izan daitezen, likidoak lastoaren edo antzeko metodoen bidez absorbituz.

3. Banakako arazketa egin nahi izanez gero, erabiliko den sistemaren proiektua aurkeztuko da, hura mantentzeko programa, hala nola ur araztuak eta arazketan sortutako hondakinak nora joanen diren zehaztuz.

4. Ikuilutik kanpoko estabulazioa dagoenean, gorotz hobian estali gabe dagoen zatiko isurbidez kanpoko urak kanalizatu eta biltzeko sistema bat aurrikusiko da; gorotz hobiko zorua, berriz, iragazgaitza izanen da.

5. Txerri basetxeetan ur kontsumoa gutxitzeko behar diren neurriak hartuko dira, ur zikinen isurtzea mugatzeko asmoz.

6. Hildako abereak, kare biziko hilobi, sulabe, kontrolpeko zabortegi edo antzeko instalazioen bidez ezabatuko dira, horretarako proposatzen diren lekua eta irtenbidea zehaztuz.

7. Sortutako gorotza eta gernuak ongarri gisan erabiltzen direnean, finketako azalera erabilgarriak Ha 1/5 u.g.e.r. izanen du.

Nekazal ureztaketarako ganadu unitate baliokidetzat (u.g.e.r.) hartzen da, espezie bakoitzerako:

- 2 behi aurrerakoak
- 2 behi haragitakoak
- Zaldi bat.
- 30 ardi-ahuntz.
- 3,5 zerrama.
- 15 txerri haragitakoak
- 150 koneju ama.
- 250 oilo.

8. Gernu bidezko nekazal ureztaketa egiteko mugak:

- Hiri lurzorutik 100m.
- Sare nagusi, nazional, eskualdeko zein lokaleko komunikazio bideetatik 10 m.
- Ur naturaleko korranteetatik eta edateko uraren hodi eta ontzietatik 50 m.
- Bainu zonetatik, tradiziozko zein sendotuetatik, 200 m.
- Hornidurarako putzu eta iturburuetatik 200 m., nolana ere, haien babebeserako perimetroaren barnean debekatuz.

9. Gorotza gero nekazal ongarri gisara erabiltzeko gordetzekotan, honako mugen arabera egingen da:

- Ur naturaleko korranteetatik eta edateko uraren hodi eta ontzietatik 25 m.

- Bainu zonetatik, tradiziozko zein sendotuetatik, 50 m.
- Hiriguneetatik 50 m.
- Hornidurarako putzu eta iturburuetatik 200 m., nolanahi ere, haien babebeserako perimetroaren barnean debekatuz.

17. art. Belarra Kanpoan gordetzea.

Belar bolok sortzen dituzten molestiak gutxitzeko (usaia eta hezetasunagatik gehienbat), 25 metroko distantzia gutxienekoa ezartzen da haietatik hurbileneko etxebizitzara. Zilegi izanen da distantzia hori txikiagoa izatea etxebizitzaren jabearen baimen espresoa baldin badago.

Baldintza horrek beste edozein gordairu sistemarentzat balio du, gero batean gaurko plastiko boloen ordez erabiltzen bada.

**BIGARREN ATALA.
IBILGAILUEN
GARAJE ETA
APARKALEKUAK**

18. art. Airearen berrikuntza.

Motordun ibilgailuen garaje eta aparkalekuek aireztapen irekidura iraunkorrak, sartzeko ateetatik independenteak, izanen dituzte.

Irekidura horiek aurrez aurreko fatxadetan daudenean, horrela airearen zirkulazioa ziurtatuz, garajearen azaleraren %2a osatuko dute, gutxienez ere.

Kanporako irekidurak fatxada berean daudenean, aireztapenerako azalerak lokalarenaren %4a beteko du, gutxienez ere.

**HIRUGARREN
ATALA.
OSTALARITZA,
IKUSKIZUN ETA
AISIARAKO
ESTABLEZIMENDUA
K**

**19. art. Instalazioen
isolamendu akustikoa,
hots emisioa eta
baldintzak.**

1.Bar eta bestelako ostalaritza establezimenduetarako instalazio berri edo handipenek, musika ekiporik ez dutelako eta erabiltzaileengandik etortzeagatik edo hots maila mugatua izateagatik, 80 dBA baino gutxiagoko barneko hots maila badute, isolamendu akustiko gordina izanen dute ihardueraren eta etxebizitza ukituenaren artean, gutxienez ere 55 dBAkoa, iharduera, parte batean behinik behin, gauez burutzen bada, eta 50 dBAkoa iharduera egunez egiten bada, hau da, 8etatik 22etara bitartean.

2.Bar, pub, dantzatoki eta antzekoetarako instalazio berri edo handipenek, musika ekipetatik heldu den barneko hots maila dutenek, isolamendu akustiko gordina izanen dute ihardueraren eta etxebizitza ukituenaren artean, honako zehaztapenen arabera:

Barneko hots maila gehienezkoa (dBA)	Isol.akustiko gordina (dBA)
---	--------------------------------

Udalak barneko hots maila gehienezkoak betetzea exigitu ahalko du soinu emisioaren kontrolgailu etengabeak, aipatu mailak gainditzean musika ekipoak geldiarazten dituztenak, paratuz.

Lokalek nahitaezko aireztapena izanen dute halabeharrez, eta jendea, soinu absortzioa eta ate bikoitza dituen departamentu estanko batetik sartuko da.

Leihorik badago, itxita egonen dira iharduerak irauten duen bitartean, eta 6mmeko gutxienezko lodiera unitarioko bi beirekin eraikiko dira, gutxienez ere 50 mmtan bereiztuak, hutsuneak soinu absortzioa izanen duelarik.

3.Dantzatoki eta antzekoetarako instalazioak eraikin berezietan kokatuko dira.

4.Atal honetan aipatutako edozein establezimendu irekitzeko lizentzia eman aurretik, Udalak jabeari lortu den isolamendu akustikoaren neurketaren ziurtagiria, Teknikari tituludunak sinatua, eskatuko dio, Administrazioak egin ditzakeen egiaztapenentzako kalterik gabe.